

Hiznet 2012-2013

Zer diote erdaldunek?

**Erdaldunen euskararekiko iritzi
eta jarrerak Nafarroako eremu
ezberdinetan.**

Egilea: Ione Gorostazu Etxebeste

Tutorea: Jone Miren Hernandez

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
Jarrera, iritzia eta motibazioa. Hurbilpena Gizarte Psikologiatik.	5
Euskarari buruzko iritzi eta jarrerak Euskal Herrian. Ikergaiari buruzko literatura.....	14
Nafarroako zonifikazioa:	
18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa.....	23
Metodologia.....	26
Elkarrizketatuen iritziak eta esanak jorratutako gaien inguruan.....	30
1. Balio instrumentala.....	30
2. Balio integratzailea.....	34
3. Euskarari atxikitzen zaizkion kontzeptuak eta balioak eta euskararen mundua.....	37
4. Euskararen politizazioa.....	40
5. Normalizazioa eta botere publikoak duen egitekoa.....	43
6. Euakra irakaskuntzan.....	46
7. Euskararen etorkizuna.....	48
8. Euskararen nolakotasuna hizkuntza bezala.....	50
9. Euskararekiko harremana.....	51
10. Euskara ikastea.....	53
11. Euskaldunekiko harremana eta euskara ez jakitearen ondorioak.....	55
12. Ondorengoek euskara jakitea.....	58
13. Euskara jakiteak balioko al lieke.....	59
14. Hizkuntza aniztasuna.....	60
Ondorioak eta argi-ilunak.....	62
Elkarrizketetan sumatutako alderdi baikorrak edo positiboak.....	64
Atera diren alderdi ezkorak edo negatiboak.....	67
Bibliografia.....	68

SARRERA

Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baizik. Entzunaren entzunaz eta errepikatuaren errepikatuaz, euskaldun gehienok buruz dakigu, honezkero, behinola Jose Antonio Artzek esana. Ez zaio arrazoirik falta poeta usurbildarrari, eta, jakin, badakigu garairik ilunenetan ere erabiltzen zutenek eutsi ziotela euskarari, eta, gaur egun ere euskararen etorkizuna gure esku dagoela, hein oso handian. Ondotxo dakigun bezala jakitea ez dela aski, erabili egin behar dela euskara, defendatu, zabaldu, ikertu, zaindu, babestu, transmititu. Baina, normalizazioari begira, ezin ditugu albo batera utzi ez dakiten horiek ere, eta horiexek hartu dira aztergai lan honetan, erdaldunak.

2011ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 16 urtetik gorako Euskal Herriko biztanleriaren %58,4 da erdalduna. Portzentaje hori askoz ere handiagoa da Nafarroako datuak soilik kontuan hartuz gero; erdaldunek 16 urtetik gorako populazioaren % 80,7 osatzen dute kasu horretan (Euskararen Erakunde Publikoa, 2011). Beraz, ikuspuntu soziolinguistikotik oso kontuan hartu beharrekoa da erdaldunen multzoa, gehiengo zabala osatzen baitu. Edozein normalizazio planek, aurrera egingo badu, ahalik eta hobekien ezagutu behar du sektore handi bezain heterogeneo hori. Askotariakoak dira multzo honi buruz hitz egiterakoan sortzen zaizkigun galdera eta kezka: zergatik dira erdaldun horiek erdaldun? Ze irudi dute euskarari buruz? Sentitzen al dute euskararen falta? Ikasteko prest al daude? Ze iritzi dute hizkuntza politikari buruz? Ondorengoan euskalduntzeko nahi edo asmorik ba al dute? Puntu horiek eta beste batzuk jorrazteko ahalegina egin da lan honetan.

Hizkuntza-plangintzan dihardugunontzat oinarritzko betebeharra da hizkuntza-jarrerak aztertu

eta kontuan hartzea, bai bere osotasunean eta baita hizkuntza jabekuntzan eta jokaera sozialetan duten eragina kontuan izanik ere. Izan ere, eta Cooper-ek esan zuenez, hizkuntza plangintzaren helburuak ez dira helburu linguistikoak. “Aldiz, egokiagoa da giza jokaeretan eragina izateko ahalegin modura definitzea, arazo linguistikoak konpontzeko saiakera-.modura baino” (Robert Cooper, 1997:48 in Arkaitz Zarraga eta beste, 2010:205). Hori dela eta, jokaeran eragin nahi izateak ezinbesteko egiten du jarrerak ezagutzea.

Horregatik kokatu dut sakontze egitasmo hau arlo honetan. Gisa honetako nire lehen proiektua izanik, ezin izan dut helburu potologoegirik jarri, eta lan xume honen xedea **banakako elkarrizketa sakonen bidez Nafarroako hiru inguru ezberdinetako erdaldun batzuen bizipenak eta jarrerak ezagutzea izan da**. Hori bai, beti ere pertsona jakin batzuen kasuak direla kontuan hartu behar da, eta, ez dutela, beraz, inongo lagin izaerarik. Lanak ez du, beraz, hemen ateratako ideien hedapena edo indarra neurtzeko asmorik.

Finkatutako xedea lortze aldera, 1986ko Euskararen Foru Legeak ezarritako zonalde bakoitzetik belaunaldi ezberdinetako hiru pertsona elkarrizketatu ditut, beraien egoera ahalik eta gehien ulertu eta ezagutzeko helburuarekin. Ondoren jasotako informazioa landu eta konparatu dut zenbait ondorio plazaratzeko asmoz.

Sarrera honekin amaitzeko, ez nituzke aipatu gabe utzi nahiko sakontze egitasmo hau egiten lagundu didaten guztiak. Eskerrik beroenak proiekturako ezinbestekoak izan diren eta euren izena ezkutuan mantentzea nahi duten elkarrizketatuei, euren ahotsak izan baitira nire langai; Jone Miren Hernandezi, bere aholku eta gomendioengatik, eta Joseba Sanchez i lanari azken ukituak eta itxura pixka bat ematen esku bat botatzeagatik. Bejondeizuela!

JARRERA, IRITZIA, MOTIBAZIOA. HURBILPENA GIZARTE PSIKOLOGIATIK.

Gizarte Psikologia psikologiaren oinarrizko lau adarretako bat da. Soziologiaren moduan, gizartea du interesgune. Hala ere, ikuspuntu edo enfoke ezberdina dute bi zientziek: soziologiak taldeak talde bezala ikertzen ditu, bere elementu, egitura eta aldaketei erreparatuz. Gizarte psikologiak, berriz, norbanakoaren jarrera, portaera eta iritzietan taldeak (familia, klase soziala...) duen eragina ulertzeko helburua du.

Gizarte Psikologiaren oinarrizko ikergaietako bat izan dira **jarrerak**. Icek Ajzenen arabera, jarrerei buruz aritzea, gizabanakoek (eta taldeek) objektu, pertsona, erakunde edo ekimen zehatzen aurrean, alde edo kontra erantzuteko joerei buruz hitz egitea da (Icek Ajzen, 1988: 4 in Zarraga eta beste, 2010:203). Hala ere, aditu guztiak ez datoz bat jarrera zer den definitzerakoan; izan ere, 1935ean Allport-ek 100 definiziotik gora bildu zituen.

Orokorrean, baina, honako puntuak hartu behar ditugu kontuan jarrerei buruz ari garenean, Olatz Oiassoren arabera (Olatz Olaso, 2012:45):

- Jarrerak objektu sozialen baten ebaluaketa inplikatzeko du.
- Paper motibatzailea du, inpultsozkoa eta akzioaren orientazioa da, baina ez da nahastu behar berarekin, ezta ohitura edo erreflexuekin ere, jarrerak hautematea eta pentsamendua ere eragiten ditu eta.
- Jarrera zuzenean beha ez daitekeen aldagaia da.¹

1. Baieztapen hau gaur egun nagusitu den ikuspegi mentalistik soilik uler daiteke. Ikuspegi horretatik lan egin dute Joshua Fishman, Robert Cooper, Icek Ajzen eta beste hainbat ikertzailek, eta jarrera jokaerarako prestutasuna garatzen duen barne sentimendu bezala ulertzen dute. Aldiz, ikuspegi behavioristari helduz gero, jarrerak goiza jokaeretan bertan daude, eta jarrerei buruzko informazioa biltzeko nahikoa da jokaerak behatu eta horiek aztertzea (Lionel Joly eta Belen Uranga in *Soziolinguistika eskuliburua*).

- Jarrera ikasia da.
- Antolakuntza bat inplikatzen du (aspektu kognitibo, afektibo eta konatiboen arteko erlazioa edo epe luzerako oroimenean eskema afektiboa.)
- Iraun egiten du denboran (nolabaiteko egonkortasuna dago).

Behin jarrerak zer diren definituta, bere funtzio edo egitekoei buruz jardungo gara. Hau da, zertarako balio diote jarrerak gizabanakoari? Egile ezberdinen arabera, jarreraren funtzioak bost dira (Katz, 1960; Lipka, 1994; Oskamp, 1991; Perloff, 1993; Pratkanis eta Greenwald, 1989; Shavitt, 1989; Stahlberg eta Frey, 1990 in Olaso, 2012:45-46):

- Ezagutza: informazio konplexu, nahasi edo aurrean ezina ordenatu, ulertu eta asimilatzen laguntzen dute. Jarrerarik ezean, esperientzia berri bakoitzak ulermen esfortzua eskatuko luke.
- Instrumentala edo erabilgarria: sariak maximizatu eta zigorrak minimizatzea baimentzen dute, pertsonen nahi dituzten helburuak lortzen edo nahi ez dituztenak ekiditen lagunduz.
- Ego-babeslea: subjektuak bere buruarekiko sentitzen dituen emozio negatiboak aurre egitea baimentzen dute, ezaugarri batzuk kanporatuz edo ezetza emanaz.
- Balore adierazpen funtzioa: identitate eta autokontzepturako garrantzizkoak diren baloreak azaltzea baimentzen dute, norberaren zentzua baieztatu edo argitzeko beharra asez.
- Egokitzapen edo egokitze soziala: zenbait taldetan integratu eta onarpen soziala jasotzea baimentzen dute.

Jarrera bakoitzak funtzio bat edo funtzio bat baino gehiago bete ditzake. Horrez gain, pertsona ezberdinek jarrera bera izan dezakete, baina funtzio ezberdinetan oinarrituta.

Iritzia eta motibazioa ere jarrerarekin lotura duten kontzeptuak dira, baina, aurrera jo baino lehen, komeni da euren arteko ezberdintasuna zertan den gogoraraztea. Jarrera, esan dugun bezala, estimulu baten aurrean alde edo kontra erantzuteko joera da, nahiz eta jarrerak ez dakarren berez jarrera horri legokiokeen portaera.

Iritziari dagokionez, berriz, estimulu zehatz baten aurreko sinesmen edo pentsatzeko moduek osatzen dute, baina, berez ez dute erakusten erantzuteko joerarik, eta horretan datza jarrerarekiko ezberdintasun nagusia (Erramun Bachoc, 2008 in Zarraga eta beste, 2010:206). Gainera, iritziak ahoz eman daitezke, eta, jarrerak, psikologikoak direnez, ez dira agerian egoten, estalita baizik (Colin Baker, 1992 in Zarraga eta beste, 2010:206).

Erramun Baxo (Bachoc, 2008 in Zarraga, 2010:206-207) ikerkariak euskararen ikaskuntzari buruzko iritzi, jarrera eta jokaeren arteko ezberdintasunak bildu zituen. Horretarako, euskara eskolan ikasteraren inguruko esaldi batzuekiko zuen adostasun-maila adieraztea eskatu zion jendeari, eta hona hemen esaldi batzuk, kontzeptu hauen arteko lotura azaltzen dutenak:

Iritzia: Nahitaezkoa da haur guztiek euskara ikatea: ongi [iruditzen] zait, % **56**.

Jarrera: Haurrik bazenu eskolan euskaraz edo bi hizkuntzetan [ikatea nahi zenuke]:
ongi [iruditzen] zait, % **48**.

Jokaera: Zein hizkuntzatan egin zenituen ikasketak 1. mailan?: euskaraz euskaldunen % **12**,
herritarren % **4**.

Zenbaki hauek erakusten dute aldeko iritzia ez dela aski aldeko jarrera eragiteko, eta are gutxiago iritzi horri legokioken jokaera ziurtatzeko. Bestela esanda, errazagoa da zerbaiten aldeko iritzia izatea (batez ere zerbait hori politikoki zuzena bada), horri legokioken jarrera, eta, are gehiago, jokaera erakustea baino. Hala ere, Erramun Baxoren esanetan, “urruntasun nabaria izanikan ere, iritzien ikerketak balio du, zeren-eta euskararen aldeko iritzirik gabe ez da jarrera baikorrik eta jarrera baikorra da, errealitatean, hautu eraginkorren iturburua.

Egile beraren hitzak erabiliz, arestian aipatutako beste kontzeptua, hots, **motibazioa**, zera litzateke: ekintza edo jokabide baten iturburuan diren indar guztien bilduma (Bachoc, 2008: in Zarraga eta beste, 2010:206). Hizkuntza bat ikasteko eta erabiltzeko motibazioa behar da, eta motibazioaren oinarrian garrantzi handia du jarrerak.

Azken urte hauetan hizkuntza gaietan jarrerak duten garrantzia ikertu eta azpimarratu izan da. Bi faktore ezberdintzen dira jarreretan; batetik, kognoszitiboa eta bestetik, motibazionala. Izaera motibazionala duten faktoreekin lotzen da jarrera eta portaeren arteko harremana. Bi faktore hauen arteko erlazioen sakontzetik hizkuntza baten ikaste prozesua ematen den ingurune linguistikoak hauen arteko erlazioa baldintzaten duela ondorioztatu da, bakoitzaren eragina matizaturaz (Nick Gardner, 1985 in Olatz Olaso, 2012:61).

Gardner eta Smythe-k beraien bigarren hizkuntza baten jabekuntza ereduan zehaztu zuten, ingurune kultural batean subjektuak bigarren hizkuntza hori ikastea espero badu (testuinguru formala) pisu gehiago izango dute errendimenduan gaitasun kognitiboek. Aldiz, testuinguru informal batez ari bagara (hala nola telebista ikuste edota beste kide batekin aurrez aurre hitz egitea) badirudi pertsonen arteko ezberdintasunak arlo motibazionalarekin erlazionatuago daudela gaitasunekin baino (Gardner eta Smyth, 1975b in Olatz Olaso, 2012:61).

Lambert eta Gardner bera dira gai honi buruzko autorerik esanguratsuenarikoak, eta beraien ekarpenik garrantzitsuenak ikaslearen epe luzerako helburuak hizkuntzaren jabeakuntzaren lorpenekin erlazionatzen saiatzea izan zen. Autore hauek bi motibazio mota bereizten dituzte, eta sailkapen hau oso hedatua dago soziolinguistika esparruan (Gardner, 1966 in Olaso, 2012:61-62) :


Motibazio integratzailea: hau da, beste hizkuntz-taldeko kideen antza izan nahi dutenen, hots, talde honetako kide izan nahi duten gizabanakoena. Adibide moduan, herri euskaldun batera joan eta bertakoekin euskaraz mintzatzeko edota euskal liburuak irakurtzeko euskara ikasi nahi duena.

Motibazio instrumentala: beste hizkuntz-taldearekin helburu utilitarioekin komunikatzea soilik nahi dutenen taldea. Motibazio instrumentala izan dezake, esaterako, lanpostu bat lortzeko hizkuntza eskakizun bat behar duela eta euskara ikasi nahi duenak.

Autore hauek hainbat ikerketa egin zituzten bigarren hizkuntza bezala frantsesa ikasten zuten Montrealko bigarren mailako ikasleekin, eta bigarren hizkuntza ikasterakoan gaitasun kognoszi- boekin lotuta faktoreez gain, eragina zuen beste faktore bat aurkitu zuten; bigarren hizkuntza ikas- teko interesa beren talde kulturalako kideekin komunikatzearekin erlazionatzen zena, hots, moti- bazio integratzaileari lotua. Bigarren hizkuntza komunikatzeko ikasteak talde horrekiko jarrera positiboagoa azaltzen du, eta bai hizkuntza eskuratzerakoan eta baita hori erabiltzerakoan ere arrakasta handiagoa lortzea errazten du.

J. M. Sanchez Carrión *Txepetxek* ere motibazioak hizkuntzak ikasi eta erabiltzerakoan duen garrantzia azpimarratzen du (Jose Maria Sanchez Carrión, 1999 in Zarraga eta beste, 2010:262).

Bere **Ikaskuntzaren Teorian** hizkuntzak ikasteko ibilbidean eragiten duten hiru faktore aztertu ditu: ezagutza, erabilera eta motibazioa. Irudian ikusten den bezala, Txepetxek faktore hauek elkarrekin komunikatutako ontzi bezala irudikatzen ditu, eta, horrela, ontziek elkar elikatzen dute, beti ere nahikotasun maila batetik gora badaude. Aldiz, hiru faktoreetako ontziren bat nahikotasun horretara iristen ez bada, lotura hautsi egiten da eta ikaskuntza prozesua eten. Esaterako, euskara ikasten ari den batek ahaleginak egin arren lortzen ez badu, bere motibazioa jaitsi egingo da eta horrela, ez du gehiago ez ikasiko ezta erabiliko ere. Adibide hau B ibilbidea edo kulturala egiten ari den persona batena izango litzateke. Baina, alderantzizko kasuan ere, hau da, A ibilbidea edo naturala egiten ari den pertsonaren kasuan gauza bera gerta daiteke. Haur euskaldun batek etxetik irten eta euskaraz inon ezin badu egin, horrek erabilera jaitsiko dio, ondorioz hizkuntzaren ezagutza maila ere jaitsi egingo da, eta baita berau erabiltzeko motibazioa ere.




Jarrera eta portaeraren arteko harremana

Erramun Baxoren adibidean ikusi dugun bezala, jarrera eta portaera ez datoz beti bat, baina horrek ez du esan nahi loturarik ez dutenik. Jarrera eta jokaeraren arteko harremana ikergai jorratua izan da Gizarte Psikologian. Arlo horretako garatutako teoriarik ezagunenetariko bat Leon Festinger-ek garatutako **Disonantzia Kognitiboaren Teoria** da. Egile honen arabera, gizakiak pentsatzen eta egiten duen arteko kongruentzia izateko nolabaiteko joera du, hau da, jarrera eta jokaeraren artekoa (Leon Festinger, 1957 in Olaso, 2012:58). Pentsatu eta egiten denaren artean kongruentziarik ez denean disonantzia egoera sortzen da, eta honek tentsioa dakarrenez, gizakia berriro oreka lortzen saiatzen da. Oreka hori gehienetan jarrera aldatuz ematen da, eta, beraz, Festingerren honakoa baieztatu genezake: jarrera batekin bat ez datozen portarerek gertatu ahal izateko, aurretik jarrera aldaketa bat izan behar da etorriko den portaeraren norabidean.


Jarrera eta portaeraren arteko harremanaz ari garela, kontuan izan beharreko beste ideia bat Fishben eta Azjen-en **Bateragarritasun printzipioa** da (Azjen, 1988 in Oiaso, 2012:58-59). Printzipio honen arabera, jarrera eta jokabideen arteko erlazioa biak maila edo konkrezio planteatutakoan gertatzen da. Pertsona batek euskararen aldeko jarrera edukitzeak ez du ekarriko, beraz, euskarazko produktuak kontsumitu edo lehendabiziko hitza euskaraz egitea, jarrera hori maila orokorragoan planteatzen baita.

Portaera horiek aurreratzeko esfera konkretuagoetako jarrera ezagutu beharko genuke, hots, pertsona horrek euskarazko produktuak kontsumitzeari edota lehen hitza egiteko zein hizkuntza aukeratzeari buruz duen jarrera. Ideia honek berebiziko garrantzia du portaera aurreikusteko egindako ahaleginetan, gai zabal edo plano orokorrei buruzko jarrerak portaera zehatzetan uste baino gutxiago eragiten duela erakusten baitigu.

Hori guztiaz gain, egile horiek beraiek **Ekintza Arrazoiuaren Teoria** fomulatu zuten. Teoria horren arabera, portaera bat aurreikusteko ez da aski jarrera ezagutzea. Izan ere, jokaeran jarreraz aparteko aldagaiek ere eragiten dute. Horietako bat gure inguruak, eta gehienetan, gertueneko jendeak, egiten duen presioa da, **arau sozial subjektibo** bezala ezagutzen dena. Arau sozial subjektiboak eta jarrerak intentzioa osatzen dute, eta portaerak auresateko **intentzioa** ezagutzea komeni da, irudian ikus daitekeen bezala:



Baina kontuan hartu behar dugu portaera asko ez daudela, partzialki bada ere, pertsonaren kontrolpena, eta pertsonak badakite hori. Zenbait portaera gauzatzeko pertsonak hautemandako kontrolak ere eragina du intentzioan. Horrela, pertsona batek euskara ikasi nahi badu, beste aldagai batzuen artean eragina izango du bere intentzioan euskara ikastea lortzeko duen posibilitatea subjektiboak ere, hots, euskara ikasteko bere ustez dituen aukerak. Alderdi hau kontuan, Ekintza Arrazoiuaren eredua osatzen da **Ekintza Planifikatuaren Teoria** sortuz:



Zerk sortzen ditu jarrerak? Jarreraren eragileak.

Jarrerak nola sortu edo eraikitzen diren azaltzen duen teoria nagusia **Ikaskuntzaren Teoria** izan da (David Kretch, 1965 in Eduardo Apodaka, 2004:105). Teoria horren arabera, gizakiak ingurumenari egokitzeko sortzen ditu jarrerak. Giza ingurumenari egokitzea edo ikastea, hots, gizarteratzea da jarrerak izatea.

Hala ere, gizarteratze horretan jarrerak eratzerakoan eragile ezberdinak daude, eta baita alor ezberdinetako osagaiak ere: **ezagutzaren prozesuak** (objetuaren gainerko ezagutza), **afektiboak** (objetuari buruzko ebaluazioak eta emozioak) eta **jokaeraren** prozesuak (objetu horrekin izandako esperientzia).

Eduardo Apodakaren arabera, hala ere, eragile zehatz hauek izan beharko genituzke batez ere kontuan jarrerak sortzen dituzten aldagaietatzen ari garenean:

- **Eragile fisiologikoak:** unean unekoak dira eta aldaketa fisikoei lotuak daude, baina baita gaitzei eta droga-kontsumoari ere.

- **Jarreraren objektuarekiko harreman zuzena:** harreman zuzena dagoenean jarrerak finkoagoak eta iraunkorragoak dira, eta, gainera, portaerari estuago lotuta daude. Beraz, horiek aldatzea zaila da.
- **Erakunde Orokorrak:** subjektua osoki hartzen dutenak dira, hala nola familia edota Eskola. Erakunde hauek gizarteratzen dituzte subjektuak, nolabait esateko gizakiak "ekoizten" dituzte, pertsona horri kultura bat ezarriz. Horrela, pertsona hori ere talde edo gizarte horretako partaide egiten da.
- **Taldekidetasuna:** taldeak arau eta jarrera batzuk ezartzen dizkie taldekideei, eta horiek onartu ezean ezingo dira talde horretako partaide izan. Jarrera "onak" hartu eta "txarrak" edo "arrotzak" bazter ditzaten presioa egiten du taldeak. Horrez gain, krisialdietan edo jendea noraezean dabilenean (zer pentsa eta zer egin jakin gabe) taldeak erabakiko du zer den egokiena, hots, berak sortuko du jarrera.
- **Komunikazioa:** Komunikazioaren aldagaiek ere eragina dute jarreretan.
- **Nortasuna:** gizabanakoaren zenbait ezaugarriak ere badu eragina (norber buruarekin konfidantza, pentsaera estiloak...).

EUSKARARI BURUZKO IRITZI ETA JARRERAK EUSKAL HERRIAN. IKERGAIARI BURUZKO LITERATURA

Euskararekiko iritzi eta jarrerei buruzko zenbait lan aipatuko dira hemen, eta baita lan horietako ekarpen eta ideia garrantzitsuenak ere. Ikerketa eta lan hauetako gehienek Euskal Herri osoa hartzen dute ikerketa eremu bezala, nahiz eta izan zenbait aipamen eta datu bereziki Nafarroakoak izan. Hasteko, 1991tik hasita bost urtez behin egiten **Eusko Jaurlaritzak egiten dituen Inkesta Soziolinguistikoeak** Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko herritarrek **hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra duten jarrerari buruzko datuak** ematen dizkigute.

2011ko Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen arabera, euskararen erabilera sustatzearen alde daude 16 urte edo gehiagoko biztanleen %37,7 Nafarroan. Euskara sustatzearen ez alde ez aurka biztanle-multzo esanguratsua dago, %27,8 eta, azkenik, aurka daudenak %34,5 dira. Euskal Herri osoko datuak kontuan izanez gero, aldekoak %55,2, ez aurka ez alde daudenak %37,7 eta aurka-koak %17,1 dira. Beraz, Euskal Herriko batezbestekoa kontuan izanez gero, Nafarroako euskara sustatzearen aldeko jarrera ezkorragoa da.

Hala eta guztiz ere, hogeitaz urteko epean euskara sustatzearen aldeko jarreraren igoerarik handiena Nafarroan izan da, %21,6 baitziren euskara sustatzearen aldekoak 1991n, eta %37,7 dira gaur egun (Eusko Jaurlaritza, 2012:25-27). Euskara sustatzearen aldeko jarrerak lotura handia du hizkuntza gaitasunarekin, izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde daude elebidunen %88tik gora Nafarroan. Adinari dagokionez, berriz, Nafarroako gazteen artean nahiko altua da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, eta baita 65 urtetik gorakoen artean ere, helduen artean baino handiagoa.

Inkestaren arabera, gehiengoak Administrazioan sartzeko euskaraz jakiteari ezinbesteko irizten dio, (%53), baina ez du uste hurrek ezinbestez euskara ikasi behar dutela (%43); azken horri buruz aurkakoak ere asko dira, %48, alegia. Seme-alaben irakaskuntza ereduaren hautuari dagokionez, euskarazko ereduari ikas dezaten nahi lukete Nafarroako biztanleen %32k, eta biztanleriaren laurden batek (%24) B eredia aukeratuko luke.

Euskal Herriko iritzi publikoari dagokionez, lehenik eta behin zera gogorarazi behar dugu: iritzi publikoa kontzeptuari gehiantan esanahi nazionala ematen zaiola, baina hori sinplifikazioa dela. Baina euskararen kasuan ezin da **Euskal Herriko iritzi publikoaz** hitz egin, izan ere, neurri handi

batean hizkuntza gaitasunari lotutako **bi iritzi nagusi daude: euskaldunena eta erdaldunena**. Ikerketen arabera, euskaldunentzat hizkuntzak norberaren nortasuna zehazteko balio handia du eta erdaldunentzat, aldiz, hizkuntzak balio komunikatiboa du batez ere (Nekane Larrañaga, 1996; Eusko Jaurlaritza, 1995 in Zarraga, 2010 in Zarraga eta beste, 2010:192).

Politikak eta nazionalismoak eragin handia izan dute euskararen ideologia linguistikoaren historian, baina gaur egun despolitizazioaren aldeko joera zabaltzen ari da. Joera hori, hala ere, bi ikuspegi ezberdinetan zatitzen da:

- Batetik, hizkuntzak tresnak besterik ez direla uste dutenak, normalean elebakar erdaldunak edo euskaldun berriak. Ez dute ondo ezagutzen euskara, eta euskaraz ari direnean tresna ikuspegia hartzen badute ere, euren erdarari hizkuntzaren karga afektiboa, emozionala eta nortasunarekiko lotura ematen diete. Hizkuntza-politikari buruz eta joera bera agertzen dute: nazionalistak abertzaleak dira eta ez-nazionalistak, alegia, erdal nazionalistak, neutroak dira, eta, beraz, azken hauen ekintzak normaltzat hartzen dituzte.
- Bestetik, zenbaitek euskararen normalizaziorako hizkuntzaren despolitizazioa ezinbestekoa delauste dutenak daude, merkatu linguistiko oso bat osatzeko nahitaezko ezaugarria baita despolitizazioa. Gizartea euskaraz bizi dadin, ideologia-mota guztietako pertsonen osatdagoen eta gai guztiez euskaraz hitz egiten duen gizarte bat behar da, euskararen erabilera markatua izanez gero ezinezkoa da hori. Hala ere, euskararen erabilera oraindik aurreritziari lotuta dago ikerketek erakusten dutenez. (Lionel Joly, 2004 in Zarraga, 2010:194).

Kontuan izan behar da euskara hizkuntza minorizatua dela, eta horrek eragina duela hizkuntza honekiko iritzian. Izan ere, urteetan zehar euskaldunek beraiek ere euskararekiko autogorrotoa

sentitu dute, eta prestigiorik gabeko hizkuntza izan da. Frankismo ondoren, baina, normalizazioaren aldeko indarrak sortu dira.

Hizkuntza bati buruzko iritzi eta jarrerak baldintzatzen dituen beste faktore bat **hizkuntza horren boterea da**. Honi lotuta, euskararen bizindar etnolinguistikoari buruzko lanak egin izan dira Euskal Herrian. Laburren esanda, **bizindar etnolinguistikoa** talde arteko egoeretan talde bati izaki kolektibo desberdin eta aktibo gisa jokatzeko aukera handiagoa ematen diona da (Giles eta beste, 1977 in Zarraga, 2010:195-196). Bizindarra neurtzerako garaian, faktore geografiko eta babes instituzionalaz gain faktore garrantzitsua da hizkuntza horren prestigioa edo estatusa. Talde batek zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa izan, orduan eta aukera handiagoak izango ditu hizkuntza-komunitate gisa bizirik irauteko egoera elebidun edo eleaniztun batean.

Ikerketa horietako batean bost herritako bizindar objektiboa neurtu eta euskararen erabileran duen eragina aztertu zen, eta bi ondorio hauek atera ziren: Batetik, zenbat eta bizindar etnolinguistiko handiagoa, orduan eta euskararen erabilera altuagoa. Bestetik, bizindar etnolinguistikoaren eta euskararen erabileraren arteko erlazioa ez da herri guztietan intentsitate berekoa. Bizindar etnolinguistiko baxua denean, euskararen distantzia handiagoa da; aldiz, bizindar etnolinguistiko altua denean euskararen erabilerarekiko distantzia estuagoa da, hots, bizindarra neurri batean sendotzen denean, erabilera are nabarmenago igotzen da (Usarralde; Martínez de Luna, 2004 in Zarraga, 2010:196-197).

Horri lotuta, kontuan izan behar dugu **hizkuntza baten inguruko jarrera hizkuntza horren ospeari lotuta egoten dela**. Nondik dator, baina, ospe hori? Ospea, batetik, eta batez ere, onarpen ofizialak dakar (estatus ofiziala, babes instituzionala, babes ekonomikoa...) eta, bestetik, identitate-emaile izaera tarteko, tradizio kulturaletik (literatura...).

Hizkuntza ofizialen kasuan hizkuntzak berak ematen die ospe politikoa, ekonomikoa eta soziala hiztunei, eta hizkuntza prestigidunen hiztunek beste hizkuntza batzuekin harremana dutenean (hizkuntza-ukipenezko egoeretan), ñabardurak sortzen dira (Zarraga, 2010). Gaztelania eta euskararekin gertatzen den moduan, ukipen egoera horretan ospe gutxiagoko hizkuntzekin gertatzen bada harremana, hizkuntza ofizialeko hiztunek sarritan axolagabekeria edo gutxiespenezko jarrerak erakusten dituzte hizkuntza eta hiztun horiekiko (Martí eta beste, 2005: 299 in Zarraga, 2010:2010-211). Gainera, belaunaldi gazteek helduek baino errazago aldatu izan ohi dituzte euren hizkuntzaren aldeko jarrerak, ospe handiagokoa denaren alde eginez.

Arestian aipatu dugu **hizkuntza bat ikasi edo erabiltzerako orduan kontuan hartzen ditugun bi motibazio motak (instrumentala eta integratzailea)**. Motibazio horiek ere ikergai izan dira euskarren kasuan. Horrela, eta euskarari buruz ari dela, Iñaki Martínez de Lunak hiru motibazio iturri aipatzen ditu (Martínez de Luna, 1996: 48 in Zarraga, 2010:213-214): **motibazio sinbolikoa**, Euskal Herriko partaide izateari lotua; **arrakasta motibazioa**, gizartearen elite sozio-ekonomiko eta politikoaren hizkuntza-ereduari jarraitzeari lotua; eta ezaguna den **motibazio pragmatikoa**, motibazio instrumentala deitu duguna. Azken erako motibazioak inguruan sortzen ditu (lanpostu bat lortzeko euskara behar izatea, esaterako), baina ikerlariaren ustez hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeko orduan indar handiko motibazioak behar dira, hala nola sinbolikoak, baina euskararen kasuan sarri ez da nahikoa motibazio hau, eta, gainera, Euskal Herrian elitearen gehiengoaren hizkuntza erdara izan denez arrakasta motibazioak ez du indarririk.

Nekane Larrañagak 1991tik 1999ra Euskal Herri osoko gaztetxoaren jarreraren bilakaeraren azterketa egin zuen, eta zera ondorioztatu: aztertutako denbora tartean euskal gazteen euskararekiko jarrerak berdintsuak izan dira, baina **motibazio instrumentala** (berak *trukerako jarrera* deitu zuen) **in-**

dartu egin da denboran zehar. Horrez gain, motibazio integratzailea (berak *jarrera izanarazlea* deitua) garrantzitsuagoa da iparraldean eta Nafarroan EAEn baino. Motibazio instrumentalak garrantzirik handiena EAEn du. Ulegarria da motibazio instrumentalak indar handiagoa izatea EAEn; izan ere, euskarak lanpostu eta aukera gehiagotarako ateak irekitzen ditu gainerako bi eremuetan baino. Hala ere, Larrañagaren ustez hizkuntza baten aldeko jarrerak eragiteko orduan indartsuagoa da motibazio integratzailearen papera motibazio instrumentalarena baino (Larrañaga, 2006: 252 in Zarraga, 2010:214).

Jone Miren Hernandezek, ere euskarari buruzko **Euskal Herriko gaztetxoek jarrerak** ikertu zituen, eta bat dator Larrañagaren ondorioetako batekin: **motibazio instrumentala indarra hartzen ari da.** Lehen euskararen aldeko jarrerak motibazio integratzailearekin lotuak ziren (gure hizkuntza izatea...) baina gaur egun motibazio pragmatikoa indartzen ari da. Aurkako jarrerak, berriz, lehen lotuagoak ziren ukazioarekin (ez da existitzen, ez du balio...), baina orain ezagutza igo denez beste arrazoi batzuk daude aurkako jarreraren atzean (inposatua, eskola hizkuntza...), ondorengo taulan ikus daitekeen bezala (Jone Miren Hernandez, 2000 in Zarraga, 2010:214-215).

	EUSKARAREN ALDEKO JARRERAK	EUSKARAREN AURKAKO JARRERAK
LEHEN	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ezagutza: gure hizkuntza da - Euskararen erabilera: <ul style="list-style-type: none"> • Hurbileko komunitatean integratzeko baliagarria da. • Egunerokotasunean. - Euskararen inguruko motibazioa: izaera eta izateko erari lotuta dago. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ezagutza: existitzen ez den hizkuntza da. - Euskararen erabilera: hizkuntza mugatua da. - Euskararen motibazioa: baliorik gabeko hizkuntza da.
ORAIN	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ezagutza: ikuspuntu pragmatikoa, identitarioa, kulturala du. - Euskararen erabilera: pragmatikoa, militantea, egoera eta funtzio zehatzei lotuta dago. - Euskararen inguruko motibazioa: kulturala, politikoa, gizabanakoa, komunitarioa, pragmatikoa du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskararen ezagutza: inposatua, onartua, errealitatean kokatua da. - Euskararen erabilera: funtzio gutxiko hizkuntza da, eskolan ikasitakoa, gustukoa ez dena, erabiltzen ez dena, nahikoa ikasten ez dena... - Euskararen inguruko motibazioak: biolentzia eta politikari lotua dagoen hizkuntza da, arraroa, <i>sentitzen</i> ez den hizkuntza...

Hala ere, Hernandezen esanetan euskararen aldeko eta aurkako jarrerei dagokionez, bi muturren arteko aldea orain dela urte batzuk baino txikiagoa da eta jarrera horiek *continuum* batean ulertu behar dira.

Egile beraren ikerketa batek agerian utzi duenez, euskara zenbait irudi eta kontzepturekin lotzen da: *casero*arekin (baserritarra), gazte borrokarekin edota gazte jatorraren (mendizaleak, kirolzaleak, kulturazaleak...) irudiarekin lotzen da euskara. Aldiz, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana bezala hizkuntzak aukeratzeko orduan horiek hizkuntza handiak eta boteretsuak direla, hiritarrak, konplexuak, irekiak, zabalak eta abar dira gaztetxoek emandako arrazoiak. Euskara, aldiz, hizkuntza txiki, single, mugatu edo gatazkatsua da gazte horientzat (Hernández, 2000: 81 in Zarraga, 2010:214-215).

Gazte nafarren kasuan badu berezitasunik: horien artean euskara dakitenek eta euskara defendatzen dutenek beren identitatea euskarari oso lotua dute, eta, beraz, beraz, **motibazio integratzailea nagusitzen da**. Askotan erabilera bigarren maila batean kokatzen dute, baina batez ere gizarte mailako faktoreek eragiten dute hau. Horrez gain, **euskararen aldeko erdaldunak ere asko dira** Nafarroako gaztetxoan artean. Horiekere motibazio integratzailea dute gehienbat, eta euskara identitatearekin eta abertzaletasunarekin lotzen dute. Hala ere, badaude motibazio instrumentala dela eta euskara ikasi nahi dutenak ere.

Azkenik, aipatzekoa da **UNESCO etxeak erdaldundunen euskararekiko aurreiritziak eta jarre-
rak ezagutzeko egindako lana (Esti Amorrortu eta beste, 2009)**, metodo kualitatiboa eta kuantita-
tiboak erabiliz (eztabaida taldeak eta inkestak). Lan honek interes berezi du guretzat, orain arteko
aipaturiko lanek ez bezala, erdaldunak ditu aztergai zehatzak. Bertan, jarrian laburrean azalduko
diren emaitza interesgarriak atera dira hainbat arlori buruz (Amorrortu eta beste, 2009:22-211).

Hasteko, jarreraren izaera instrumentala eta integratzailea dimentsioai barnekoa ("barrutik ateratzen dena" eta "askatasunez hartzen dena") eta kanpokoa ("norberaren at dagoen zerbaitek" edo "kanpo presioak" eragina) kontzeptuak gehitu zaizkie. Euskara ikastera bultzatzen duten bi motibazio

instrumental garrantzitsu haurrei etxeko lanetan laguntzea eta beste lan batzuk lortu ahal izatea izan dira. Motibazio integratzaileari dagokionez, berriz, indarra dute “gure hizkuntza delako” motibazioak eta baita euskaldunekin euskaraz komunikatu ahal izateak ere. Orokorrean, baina, motibazio guztiek (barneko, kanpoko, integratzaile zein instrumental) ageri dute euskaraz ez dakiten jendea mugiarazteko indarra. Hala ere, partaideen arabera barne motibazioak dira ahalment-suenak hizkuntza indartzeko. Euskara ez ikasteko arrazoi bezala, berriz, denbora falta izan da faktorerik errepikatuen, nahi eta honek motibazio falta ezkuta lezakeen, “arrazoi saihestezin” bezala agertzen baita.

Horrez gain, ikerketak azaleratu duen kontzeptu bat *bi munduko* egoerarena da: honen arabera, euskarari lotutako mundu bat dago, eta bertan ez da sartu biztanleriaren zati bat, gaztelaniarekin lotutako munduan bizi dena. Hala ere, euskararen munduarekiko ezagutza eta hurbiltasun maila oso ezberdinak daude; batzuek ez dakite mundo hori badenik ere, eta dakitenek ere oso balorazio ezberdinak egiten dituzte mundu horretaz. Egoera horretan bizi direnek ez dakite beste mundua badenik ere, eta ez dute uste euskara jakin gabe ezer galtzen dutenik.

Euskararen etorkizuna, erakundeen babesa eta konpromisoari buruz, berriz, partaide gehienek euskara gizarte osoaren erantzunkizun bezala ikusten du, nahiz eta zenbait ñabardura egin behar diren. Batetik, normalizazioareko konpromisoa beharrezkoa dela uste da, orokorrean, eta baita konpromiso hori ahuldu egin dela ere. Erakundeean babesa beharrezkoa ikusten da, baina arriskutsua ere izan daiteke, gizartearen inplikazioa murriztu dezakeelako. Etorkizunari begira, berriz, oso iritzi ezberdinak daude, hasi ezkorrenetik eta *arrosa koloreko etorkizuna* deitutako gehiegizko baikortasunera arte. Aipatzekoa da, bestetik, hizkuntza politikaz hitz egiterakoan hizkuntza gutxituen aldeko politikak izan dituztela partadieek buruan, baina kontuan izan beharra dugu hizkunt-

za menderatzaileek ere beraien hizkuntza politikak dizuztela, hizkuntza txikienenak baino indartsuagoak.

Euskara hizkuntza zaila dela oso barneratuta dagoela erakutsi du ikerketak, eta baita heldutan hizkuntza bat ikastea oso zaila dela ere, eta euskara ez ikasteko arrazoirik nabarmenetako bat dela zailtasuna. Euskara ikasten ari ez diren askok ere ikasi nahiko lukete euskara, baina ez daude prest egungo baldintzetan ikasteko (ordu asko) eta, gainera, askoren helburua komunikazio egoera zehatz batzuetan erabiltzeko ikastea da, ez bikain hitz egiten duen hiztun oso bihurtzeko. Aipatzeko da, bestetik, jarrera arau-emaileen indarra nabarmendu dela ikerketan, oso kaltegarria dena euskaraz zertxobait dakitenak hitz egiten ausartzerako orduan (erdarakadak, ongi/gaizki hitz egin...).

Horrez gain, zenbait ideia ez dira ia eztabaidatu, ukaezin bezala hartzen direlako: hizkuntza politikari dagokionez gauzak adostasunez egin beharko liratekeela, euskara politizatuta dagoela eta hori negatiboa dela, euskarak batez ere kultura izan beharko lukeela, guztien eskubideak (ikasi nahi ez dutenenak ere bai) errespetatu behar liratekeela eta berreskuratze prozesuak "naturala" izan beharko lukeela, esaterako.

Guztiek onartu dituzten ideia horiek, baina, esanahi baikoitza izan dezakete. Izan ere, normalizazioari dagokionez urratsak adostasunez eman behar direla baieztatzen da, baina ikerketak zera azaleratu du egindako azterketa kuantitatiboaren bidez adostasun hori oso maila abstraktuan bakarrik lortzen dela erakutsi du. Hau da, "euskara errespetatu behar da" eta "ezin da euskara galtzen utzi" bezalako adierazpenetan adostasuna lortzen bada ere, neurri zehatzak proposatzerakoan joera ezberdinak ageri dira (*aldekoagoak, bai-bainakoak eta kritikoagoak* deituak ikerketan). Argi eta garbi geratu da erakundeen eta gizartearen konpromisoaz ari garenean batzuentzat diskrimina-

zioa positiboa dena beste batzuentzat inposizioa dela, eta, beraz, zaila dela hasiera batean aipatutako adostasun hori lortzea, gatazka elementuak daudelako.

Ikerketa honekin amaitzeko, bertan azaldutako zenbait aurreiritzi aipatuko ditugu, azaletik bada ere. *Folk Linguistics* edo *ez adituen hizkuntzalaritza* izeneko azter eremuak aztertzen ditu aurreiritziak, eta hizkuntzari buruzko uste orokortuak dira. Aurreiritzi hauek garrantzitsuak dira gizartean ondorioak dituztelako, mesedegarriak zein kaltegarriak izan. Hauxe da Amorroto eta abarren lanean agertu diren aurreiritzien zerrenda:

- Euskara hizkuntza ederra da.
- Euskara hizkuntza zaila da.
- Euskalduna izateko ondo hitz egin behar da / Batzuek ondo hitz egiten dute baina gehienek txarto.
- Euskara galtzear dago.
- Umeek erraz ikasten dute; helduentzat oso zaila da.
- Heldu batzuk ez dira gai euskara ikasteko.
- Murgiltzea da euskara ikasteko método bakarra edo murgiltzean baino ezin da euskara ikasi.
- Ama ez bada euskalduna familian gutxiago transmititzen da.
- Zenbat eta hizkuntza gehiago hobea; Hizkuntza bi jakinda askoz errazago ikasten dira beste.. batzuk; Hobe da denontzat hizkuntza bakarra egotea.
- Zilegi da hizkuntzen arteko elkar eragina.
- Elebitasun indibidualik ez dago; ezinezkoa da elebidun izatea.
- Lehen hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko.

- Denok euskaldunak izan arte Euskal Herria ez da euskalduna izango; elebitasun sozialik ez dago.
- Heziketa txarrekoa da denak euskaldunak ez badira euskaraz berba egitea.

NAFARROAKO ZONIFIKAZIOA: 18/1986 FORU LEGEA, ABENDUAREN 15EKOA, EUSKARARI BURUZKOA

Arestian aipatu bezala, lan hau egiterako orduan Nafarroa hartu da ikerketa eremutzat. Nafarroaren barruan, eremu ezberdinetako jendea elkarrizketatu da, eta eremu hauek 1986tik den euskararen legeak finkatutakoak dira. Izatez, eremuak errealitate soziolinguistikoaren arabera banatu ziren, baina, aldi berean, ezin dugu ahaztu **eremu bakoitzeko legedi, neurri eta politika linguistikoek errealitate soziolinguistikoan eragiten dutela**. Eremu batean edo besteak bizitzeak zenbait aukera eman edo kentzen ditu; adibide bat ipintzearen, eremu ez euskaldunetako haurrek ez dute euskarazko hezkuntza jasotzeko eskubiderik.

1986ko abenduaren 15ean onartu zuen Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea, gizarte elkarbizitzaren alorrean nahiz irakaskuntzan. Euskararen erabilpen normala eta ofiziala arautzeko asmoz, legearen lehen artikulua dionaren arabera. Horrez gain, legearen ezinbesteko helburuak ziren (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 1985 in www.behatokia.org) :

- *“Herriarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.*
- *Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.*
- *Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealitate soziolinguistikoaren arabera.”*

Lege honek gaztelania ezartzen du Nafarroako hizkuntza ofizialtzat. Euskara ere ofiziala izango da, *“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 9. artikuluan eta Foru Lege honetakoetan aurrikusitako eran”*.

Gure gaiari dagokionez, baina, legearen 5. Artikulua da gehien interesatzen zaiguna, foru lege honen ondorioetarako Nafarroa hiru eremutan zatitzen baitu:

“ a) Eremu euskalduna, ondoko udalerriek osatua:

Abaurregaina, Abaurrepea, Altsasu, Anue, Araitz, Arantza, Arano, Arakil, Arbizu, Areso, Aria, Arike, Arruazu, Bakaiku, Basaburua, Baztan, Bertizarana, Betelu, Auritz, Ziordia, Donamaria, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Elgorriaga, Eratsun, Ergoien, Erroibar, Esteribar, Ezkurra, Garaioa, Garralda, Goizueta, Uhart-Arakil, Imotz, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Labaien, Lakuntza, Lantz, Larraun, Leitza, Lesaka, Oitz, Olazti, Orbaitzeta, Orbara, Orreaga, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Ultzama, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Luzaide, Bera, Hiriberri, Igantzi, Zubieta eta Zugarramurdi.


a) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua:

Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Artzibar, Atez, Barañain, Burgi, Burlata, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Eguesibar, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Garde, Goñerri, Gorza, Gesalatz, Uhartea, Izaba, Itza, Itzaltzu, Eaurta, Txulapain, Lezaun, Lizoainibar, Otsagi, Odieta, Olaibar, Oltza, Ollaran, Orontze, Orotz-Betelu, Iruña, Gares, Erronkari, Jaitz, Sartze, Urzainki, Uztarroze, Bidankoze, Bidaurreta, Atarrabia, Deierri eta Zabaltza.

b) Eremu ez-euskalduna, gainerako udalerriek osatua.”

Banaketa honen ondorioz, nafarren hizkuntza eskubideak dagokien eremuaren arabera izango dira, eta honek eragina izango du egunerokotasunean. Erabilpen ofizialari dagokionez, eremu euskaldunetako *“Herritar guztiek, Administrazio Publikoekiko harremanetan, euskara nahiz gaztelera erabiltzeko eta hautatutako hizkuntza ofizialean harrera izateko eskubidea dute”*. Horrez gain, *“Erabilitako hizkuntza edozein izanik, administrazio jarduera guztiak baliozkoak izanen dira eta legezko*

eraginkortasun osoa izanen dute. Horren ondorioz, Administrazio Publikoen organoek parte hartzen duten ekintza guztiak, baita administrazio jakinarazpen eta adierazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, interesatu guztiak espreski bakar bat erabiltzea aukeratzen badute izan ezik". Justizia administrazioarekiko harremanetan ere herritarrek aukeratutako hizkuntza erabili ahal izango dute.



Eremu mistoko erabilpen ofizialari dagokionez, baina, legearen arabera *"Herritar guztiak euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dute Administrazio Publikoari zuzentzeko."* Eremu euskaldunean ez bezala, oraingo honetan ez du esaten euskaraz harrera izateko eskubidea dutenik.

Azkenik, eremu ez euskaldunean *"Aitortu egiten da herritarrek Nafarroako Administrazio Publikoetara euskaraz zuzentzeko eskubidea dutela. Azken hauek interesatuei gaztelaniarako itzulpena eska diezaioke, edo 9. artikuluan aurreikusitako itzulpen zerbitzuak erabili."*

Legeak jorratzen duen beste puntuetako bat irakaskuntzarena da. Foru legearen arabera, eremu euskaldunean *"Ikasle guztiak irakaskuntza hartuko dute, guraso-boterea edo tutoretza daukan pertsonak,*

edo hala badagokio, ikasleak berak aukeratutako hizkuntza ofizialean.” Horrez gain, “Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan derrigorrezkoa izanen da euskara eta gaztelaniaren irakaskuntza, ikasle guztiak oinarritzko eskolatzearen bukaeran bi hizkuntzetan gaitasun maila nahikoa frogatu ahal izan dezaten.”

Eremu mistoari dagokionez, berriz, “1. Euskara irakaskuntzan sartzea mailaz maila, gero eta gehiago, eta nahikotasunaz eginen da, ikastetxeetan eskatzen dutenendako euskarazko irakaskuntza duten ereduak sortuz. 2. Hezkuntza maila ez-unibertsitarioetan euskara irakatsiko zaie nahi duten ikasleei, oinarritzko eskolatzearen bukaeran euskararen ezagupen nahikoa izan dezaten.” Azkenik, eremu ez euskaldunean legea ez da batere zehatza: “Euskararen irakaskuntza bultzatua izanen da, eta hala behar izanez gero, botere publikoek osoki edo partzialki finantziatua, sustapen eta promozio irizpideei jarraiki eta eskarien arabera.”

METODOLOGIA

Arestian aipatu bezala, lan honen helburua euskaraz ez dakiten lagun batzuen bizipenak, iritziak, jarrerak eta motibazioak ezagutzea izan da. Guztira bederatzi elkarrizketa egin dira, bi aldagai konbinatuz: eremua eta adina. Eremuari dagokionez, Euskararen Legeak ezarritako zonalde bakoitzeko herri edo hiri bat aukeratu da, ingurune soziolinguistiko eta legezko eremu ezberdinetako errealitatea aintzat hartu asmoz²:

